



Ekainaren 13an izango da Euskal Herriko Eskolartekoa, Arantzán

Herialdeetako Eskolartekoetatik sailkatzen dira gazteak Euskal Herrikoan kantatzeko. Aurten, sintonia berria izango du ekimenak.

Ondo biribilduta izaten dute bertsoan ari diren gazteek ekaineko bigarren asteburua, eta horrela da aurten ere. Izan ere, ekainaren 13an egingo da XXXVIII. Euskal Herriko Eskolartekoa, aurreko bi urteetan bezala, Arantzán (Nafarroa). Bertsozale Elkarteak eta Ikastolen Elkarteak elkarlanean antolatzen den ekimena da Eskolartekoa, eta aurten ere Arantzánko Udalaren laguntza izango du.

Finala jokatzeko, finalistak behar. Horretarako ari dira jokatzeko herialdeetako Eskolartekoak. Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako finalak bukatu dira, eta hurrengoak izango dira horietako ordezkariak: Arabatik Maia Ortiz de Zarate eta June Astegieta; Gipuzkoatik Adei Urbitarte eta Kattalin Arabolaza, eta Nafarroatik Kattin Madariaga eta Kattalin Lizarraga. Beste bi final falta dira oraindik: Bizkaiako finala asteon izango da, maiatzaren 30ean, Aulestin; eta Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako finala ekainaren 7an, Itsasun. Horiek amaitutakoan jakingo da zeintzuk izango diren finala osatuko duten gazteak.

Saio ostean, mokadua

11:30ean hasiko da finala. Bertsolariak ariketaz ariketako lanak egin ostean, sari banaketa ekitaldia izango da eta sariak ere zozkatuko dira. Amaitutakoan, mokadua eskainiko da bertaratutako guztientzat. Saiorako sarrera librea eta doakoa izango da.

Sintonia berria izango du Eskolartekoak

Berrikuntzekin dator aurtengo edizioa. Izan ere, neguan jarri zen martxan Eskolarteko sintonia lehiaketa, eta erabakita gelditu da zeinena izango den bozgorailutik entzungo den musika: Ekain Alegrerena. Modu parte hartzailean egin da hautaketa, eta jasotako sintonien artean, berea izan da bozkarik gehien jaso dituen; horrela, melodia hori izango da aurrerantzean Eskolartekoan erabiliko dena.



Arantzán izango da aurten ere Euskal Herriko Eskolartekoa. // XDZ



MADDI
AGIRRE EPELDE

GABIRIA. 2026-04-11

OSINALDE SARIKO IRABAZLEA.

Doinua: Ze buruzbide bihotz gabe

Ale ederrak utzi dizkigu gaurko bertsoaren demak garaikurrekin txikitu dira nire hasierako problemak. Honek jarraitu dezan mugitu direnak ta ez direnak bertsoak entzun behar baitira batez ere gazteenak. (Honek jarraitu dezan mugitu direnak ta ez direnak) zuei eskerrak josten ditugu gure puntu ederrenak.

Gipuzkoako Herriartekoa iritsi da finalera

Aian izango da finala maiatzaren 30an; bazkarirako zein saiorako sarrerak eskuragarri daude www.bertsosarrerak.eus atarian.

Ibilbide luzearen ondoren azken txanpan sartu da Gipuzkoako Herriartekoa: larunbatean jokatu da finala Aiako probalekuan. Finalera iritsi diren bi taldeak Leintz eta Zumarraga-Urretxu 1 dira. Leintz taldean bertsoan ariko dira Ane Zuazubiskar, Haizea Arana eta Oihana Arana; gai-jartzaile lanetan Olatz Zuazubiskar; eta Larraitz Trojaola izango da epailea. Zumarraga-Urretxu 1 taldetik, berriz, kantuan Antton Fernandez, Manex Mantxola eta Mikel Iturriotz ariko dira; gai-jartzailea Leire Akizu izango da; eta epaile lanetan, Jon Mendizabal ariko da.

Ibilbide luzearen bukaera izango da larunbatekoa. Izan ere, urtarrilean abiatu zen Gipuzkoako Herriartekoa. Lehen fasean zortzi eskualdetan banatu zen Gipuzkoa, eta eskualde bakoitzetik talde batek egin zuen aurrera. Bigarren fasea jokatu ziren gero, eta zortzi taldetik lauk egin zuten aurrera, finalaurrekoetara. Oñatin eta Tolosan jokatu ziren finalaurrekoak, eta horietako bi irabazleak izango dira larunbateko finalean. Antolatzaileek diotenez, larunbatekoa Gipuzkoako bertso eskolen eta bertso komunitatearen festa izatea nahiko lukete.

Sarrerak salgai www.bertsosarrerak.eus atari berrituan

Saioa ez da izango Aian egongo den ekimen bakarra. Goizean bertso poteoa egitekoak ziren Herriartekoan parte hartu duten eskualde guztietako bertsoariekin, baina Oretetako

manifestazioa dela eta, bertan behera utzi dute. Hori horrela, bazkariarekin hasiko da egitaraua. 14:00etan izango da, Aiako probalekuan. Ondoren izango da finala, 18:00etatik aurrera.

Bazkarirako zein finalerako sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian.



Zumarraga-Urretxu 1 taldeko kideak Tolosako finalaurrekoan. //XDZ



Leintz taldeko kideak Oñatiko finalaurrekoan. //XDZ

Ekainaren 20an ospatuko da Bardo Eguna, Leitzan

Nafarroako helduen Bertso Eskoletako kideak elkartzea eta sarea trinkotzea izango du helburu egunak. Taldekako bertso txapelketa bat izango du funtsean egitarauak, taberna girokoa eta otorduez lagundua.

2012an estreinatu zenetik bi urtean behin ospatu da Bardoak, Nafarroako taldekako bertso txapelketa, banakako txapelketarekin txandaka. Zazpi edizio egin dira orduetik eta ehunka parte hartzaile pasa dira bertatik: bertsolariak, gai-jartzaileak, laguntzaileak... 2022an egun bakarreko moldean ospatu zen Bardo Eguna eta, aurten ere, horrelakoxea izango da: ekainaren 20an egingo da, Leitzan. Egun bakarrean bada ere, Bardoan izpirituari eutsi nahi izan dio elkarteak; hain zuzen ere, helduen Bertso Eskolak saretzea izango du helburu.

Bertso Eskoletako partaideen arteko harremanak bultzatu nahian, egunean bertan osatuko dira taldeak, eskola ezberdinetako bertsolariak nahastuz. Bi saio jokatu dira, bata besteren atzetik, Leitzako bi tabernetan. Horietako bakoitzean nagusitzen den taldea zuzenean sailkatuko da finalera. Afalostean izango da finala.

Izen-ematea, webgunean

Bertsolari edo gai-jartzaile gisara hartu liteke parte taldekako txapelketan, baina ezinbestekoa izango da alde zuzeneko izena ematea, aste honetan bertan, maiatzaren 31 baino lehenago. Horretarako www.bertsozale.eus atarian dagoen formularioa bete behar da.

Saio guztiak irekiak dira, baita afaria ere, baina azken honetarako ere alde zuzeneko izena eman beharko da; aurrerago zabalduko dugu honetarako aukera.



2022an jokatu zen azken Bardo Eguna; aurten izango da berriro. //XDZ

Badator Bizkaiko Taldekakoa 2026

Bizkaiko bertsolaritzaren oinarria indartzea du helburu nagusi Taldekakoak. 2017an egin zen lehenengoz eta aurtengoa bosgarren edizioa izango da.

Txapelketarik ez dagoen urteetan Taldekakoa egiten da Bizkaian 2017az geroztik, eta aurten ere horrela izango da: bosgarren aldiz egingo da Bizkaiko Taldekakoa. Ekimen honen bitartez oinarria eragin gura da; hau da, bertso eskolak eta eskualdeak indartu gura dira. Horretarako, gune ludiko bat eskaintzen du Elkarteak: giro informalean eta jai-giroan gauzatzea du helburua.

14 taldek eman dute izena aurten. Talde bakoitzean sei lagun egon behar dira gutxienez, bakoitzak lan desberdina egiteko: bertsolariak, gai-jartzaileak, epaileak eta antolakuntzaz eta komunikazioaz arduratuko direnak. Horrela, 80 parte hartzailetik gora izango ditu 2026ko edizioak.

Ekainean izango dira kanporaketa guztiak, ekainaren 5a eta 12a bitartean. Bost kanporaketa izango dira, eta bakoitzean hiru taldek hartuko dute parte. Kanporaketan hiru taldek hiru saio jokatu dituzte egun berean, eta egun horretako irabazlea finalurrekoetara sailkatuko da.

Finalurrekoak eta finala, Elkartearen egunean.

Irailaren 12an jokatu dira finalurrekoak eta finala, Elkartearen egunarekin batera. Egun osoko jaiak izango dira: goizean finalurrekoak, ostean bazkaria, eta bazkalostean finala. Goizean bost taldek parte hartuko dute finalurrekoetan.

Bazkaria izango da gero, eta bazkalostean, goizetik sailkatu diren bi talde onenek jokatu dute finala. Finalaren egunerako bazkarirako sarrerak aurrerago jarriko dira salgai www.bertsoarrak.eus atarian.



2024ko Bizkaiko Taldekakoaren finala. //XDZ



Puntu jarrita

MAIALEN CADAUID ETXEBARRIA

Litxarreriak erosteko asteburuaren zain egoten ginen txikitan eta Hitzetik Hartzera ikusi bitartean jaten genituen. Gozokiak ahoratzen nituen bitartean pentsatzen nuen zergatik gustatzen zitzaien nagusiei horrenbeste niri hain aspergarria egiten zitzaidan hori. Telebistan agertzen ziren entzuleek aspertu aurpegia zuten, eta gainera ez nuen kantatzen zutena ulertzen. Aste Nagusian eguneroko zita genuen Santiago Plazan. Eguzki galdatan urtu, entzundakoa ulertzen saiatu eta ogi barrari koxkorra lapurtuta itzultzen ginen etxera. Orduan ere ez zitzaidan dibertigarria iruditzen, baina lagunekin elkartzen ginen, eta horrek dena egiten zuen ezberdin.

Etxekoek hurbildu ninduten bertsoa, baina lagunekin egin naiz bertsozale. Lagun bertsolariak saioetara lagundu, txapelketak gertutik jarraitu, bertso-saioak antolatu... eta bat-batean gureak dira telebistan, litxarreriak jaten, ikusten diren aurpegi horiek.

Ama ere sarri agertzen da entzuleen artean. Lagun-talde fidela batzen dira saio saio plana antolatu, garraioak lotu eta sarrerak erosteko. Han ibiltzen dira Euskal Herriko txoko guztietan bertsoei jarraitzen. "Bertsoteam" ezizena jarri nien nik, "Bertsotime" esaten du berak. Edonola deituta ere, ia astebururo elkarrekin plan zoragarriren bat egiteko probesten duen señora taldea osatu dute.

Nik nagusitan zuek bezalakoa izan nahi dut, ama: bertso-saioak aitzakia hartuta asteburua lagunekin Euskal Herriko txokoak bisitatzen igarotzen duen señora bat izan nahi dut. Elkarrekin egon, elkar entzun eta elkar zaintzen duen taldetxo bat izan.

Ez da erraza bertsozale izatea. Orain, Euskal Herriko Txapelketa ate joka dugun honetan, udazkena nola antolatu pentsatzen gabiltza. Zer hartu behar dugu kontuan bertsozale nobel garenok txapelketa garaietan? Autoan lekutxo bat gordez gero zuekin joango naiz.

Koplak

Ekainaren 6an jokatuko da Señora Sariketaren finala

Plentziako Danontzat gaztetxean izango da 2026ko Señora Sariketako finala, ekainaren 6an. Kanporaketa bi jokatuko dira orain arte: Baionan eta Zizur Nagusian. Horiek amaituta, hurrengo izango da finalean kantatuko duen seikotea: Ana Picallo, Kattalin Lizarraga, Kattin Madariaga, Lide Arregi, Maider Altuna eta Oihana Iguaran. Saioaren aurretik bazkaria egongo da; sarrerak Señora Sariketaren Instagramen bidez eskura daitezke.

Poto-Finixa



Kamerak kameralaria grabatzen

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak ikus-entzunezkoen teknikaria behar du

Komunikazio eta hedapen sailean aritzeko lankide bila ari da Bertsozale Elkarteak. Ikus-entzunezko proiektuen lan teknikoa eta zabalkundea egiteko litzateke, nagusiki bertsoa. eus webgunerako eta Hitzetik Hartzera telebista saiorako; baita Elkarteak ekoizten dituen bestelako ikus-entzunezkoetarako ere. Interesatuak maiztaren 31rako bidali beharko dituzte Curriculum Vitae eta motibazio gutuna. Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian.



PUBLIZITATEA